

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 8ko Diputatu Nagusiarena. Honen bidez Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren aldaketa; Foru Dekretu horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak ezarri ziren 2015-2019 agintaldirako

Uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, diputatu nagusiak Arabako Foru Aldundiko egitura ezarri du 2015-2019 agintaldirako, sailak eta haien eskumen arloak finkatuz, eta zenbait aldaketa sartuz lehendik zeuden zuzendaritza eta administrazio unitateen atxikipen, mendekotasun eta izendapenetan.

Hala, Foru Dekretu horren 2.7 eta 2.8 xedapen zatietan, aldatu egiten dira aurreko Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko bi zerbitzuren izenak; hain zuzen ere, Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua, aurrerantzean, Ekonomia Garapenaren Zerbitzua deituko da, eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari atxikita egongo da; eta, bestalde, Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzua, aurrerantzean, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua deituko da. Aurrerago sail bakoitzaren egitura organiko berriak onartuko badira ere, orain, antolakuntza kausak direla-eta, aldatu egin behar dira aipatu ditugun zerbitzu horiek lehen zeuzkaten izenak eta atxikipenak: beraz, lehengo Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzua, aurrerantzean, Ekonomia Garapenaren Zerbitzua deituko da, eta Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua, berriz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua. Horietako lehena, Ekonomia Garapenaren Zerbitzua, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari atxikita egongo da, eta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua, aldiz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan eskuduntzak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren hamabigarren xedapen-zatiko 2. puntuko 7. eta 8. idatz zatiak aldatzea. Hona nola geratzen diren idatzita:

“2.7. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzari atxikitzen zaio lehengo Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzua, eta, aurrerantzean, Ekonomia Garapenaren Zerbitzua deituko zaio. Hirugarren xedapen zatiko lehenengo puntuko lehenengo bost atalei buruzko eskumenak izango ditu.

2.8. Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua, aurrerantzean, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua deituko da. Zerbitzu horrek bosgarren xedapen zatiko lehenbiziko sei idatz zatietan aipatzen diren eginkizunak beteko ditu, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari atxikita egongo da.”

Bigarrena. Foru dekretu hau, beraz, ematen den egunean bertan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 8a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE